

LEZOTAR MARINEL, KAPITAIN ETA UNTZIGIDARIAKXVIII GARREN MENDE HASIERAN

Gipuzkoan jaiotakoak, Lezo, Pasaia, Errenteria, Donostia, Getaria, Deba, Mutriku eta beste itsasaldeko herrietakoak, Ozeano itsasoaren gehiena nabigatu dute Florida eta Indiak, Norvegia, Ingalaterra, Irlanda eta beste irlataraino, untzigidari oso trebeak eta itsasoan kurtsatuak izanik...

LOPE DE ISASTI

Lezoren historian nekazaritzak eta abeltzantzak beti izan duten garrantzia ahortzi gabe, esan daiteke hein handi batean itsasoaren presentziak baldintzatutako bizimodu bat eraman zutela bertoko gizon eta emakumeek. Itsasuntziekin erlazionaturiko lanbideak ugariak zirenez zurgintzak indar berezia zeukan. San Jose Gloriosoaren kofradia ere sortu zuten, eta urte anitzetan Erret untzioletan tonelaia handi nahiz txikiko untziak eraikitze-ari ekin zitzaion. Inguruetakoko burdinoletan manufakturatutako aingura, kanoi, etab kanpora bidali, eta Gipuzkoarantz gehien bat garia eta ardoa ekartzeari ohizkoa zenez, itsas garraioaren garapena iritsia zen Pasaiako portura. Marinel ugari baxurako arrantzan aritzen bazen ere, ez zen falta makailaoa eta balearen arrasto atzetik Terranovaruntz irteten zen lezotar trebe eta ausartarik. Kapitulu garrantzitsua lezotarron historian, itsas guduek osatzen dutena dugu: errege ezberdinen untzietan nahiz korsora nabigatuz emandakoak.

BELAUNTZI BATEN
HARRIEKO IRUDIA.
SAN JUAN BATAIA-
TZAILEAREN ELIZA.
LEZO.



(KORSO = Estatu batek armatutako untziek, etsaiaren aurka zeramaten erasoaldiak. Korsari untziek "patente de corso" edo "carta de marca" izeneko agiri bat jasotzen zuten gobernuengandik, honen bidez beren ekintzak ez ziren legez kanpo geratzen, eta etsaiaren eskuetan eroriaz gero beligerantearen estatutuaz baliatu zitezkeen.)

KONTAKIZUN HISTORIKO BAT

Felipe Bostgarrenak Gipuzkoa osora banatutako agindu bat bete behar zela eta, 1718garren urteko urtarrilaren hamaseian, Lezoko agintariak ziren Juan de Lasarte kapitain eta kabua, Joseph de Elizondo alferitza, Baupista de Ynurrusun laguntzailea, eta Francisco de Arrillaga sarjentuak, lanbidez marinel ziren lezotar guztiak herriko enparantzan elkartu ondoren guztien izendapenari ekin zioten. Hauek dira, garai haietan, beraien urte sasoitsuenak honat harat itsaso zabalak zeharkatzen igaro zituzten lezotar itsasgizonak:

FRANCISCO DE ARRILLAGA. Hogeita hamazazpi urte ingurukoa. Maiestatearen zerbitzuan korsora irtendako untzi ezberdinetan, marinel bezala aritutakoa. Baita azken hamasei urteetan balearen arrantzura eta beste lekuetara joandako untzi ezberdinetan aritutakoa.

RAFAEL DE OLAVIDE. Hogeita hamar urtetakoa. Artilaria. 1714garren urtean Bartzelonaren (1705garren urtetik Austriako Carlos artzaduek bereganatua zeukan hiria) sokorruan irtendako Felipe Bostgarrenaren untzietan nabigatutakoa. Baita beste lekuetara joandako untzietan ibilia.

MIGUEL DE ALZA. Hogeita hamabi urte ingurukoa. Artilaria. Aipatutako Bartzelonaren sokorruan irtendako erregearen untzietan nabigatutakoa. Behin eta berriro partikularren untzietan Gadizeko portura eta beste lekuetara joandakoa.

MIGUEL DE ELIZONDO. Hogeita hamar urtetakoa. Aldi eta untzi ezberdinetan Maiestatearen zerbitzuan korsoan aritutakoa. Balearen arrantzura joandako untzietan ibilia.

FRANCISCO DE ECHEVESTE. Hogeita hamasei urtetakoa. Begiraille lanarekin korsoan aritutako marinela. Baita kondestable karguarekin balearen arrantzuan ibilia.

Ausenteak JORGE DE ECHEVERRIA. Hogeita hamalau urtetakoa. Kapitain eta untzigidaria. Zerrenda hau egin zutenean Indietako karreran zegoena.

LEZOTAR MARINEL KAPITAIN ETA UNTZIGIDARIAK

SEBASTIAN DE ARBELAIZ. Berrogeita hamalau urtetakoa. Kapitain eta untzigidaria. Zerrenda hau egiterakoan, "La Armiñona" izeneko untzian Veracruzetik egindako bidaiaren itzulian Gadizeko hirian aurkitzen zena.

ANTONIO DE ECHEVERRIA. Berrogeita hemezortzi urtetakoa. "Real San Phelipe" untzi hospatsuko hirugarren kapitaina. 1718garren urtean, Antonio de Gaztañetak komandaturako espainiar untzidia (Siciliara 16000 gizonetako ejerzito bat zeramana) Byng almiranteak gidatutako ingeles flotarengatik erasotua izan zen. Antonio de Gaztañeta mutrikuar argiak Antonio de Echeverriaren untzi berean nabigatzen zuen. Une batean, "Real San Phelipe" zazpi untzi ingeleses inguraturik ikusi zen, haien artean Delaval kontralmirantearena aurkitzen zelarik. Ilunabarrean, Gaztañeta fusil bala batez zauritua erori zen. Passeroko itsas bataila hondamen tamalgarri batetan bukatu zen. Berrehundik gora gizon galdu ondoren "Real San Phelipe" betirako urperatu zen Mediterraneoko ur geldietan. Gaztañeta, Augustarra (Sicilia) preso eraman eta gero, aske utzi zuten. Ezezaguna da Echeverria zaharrak korritutako zortea, baina seguraski Heriok eramango zuen bataila trajiko hartan burrukan ari zela.

PEDRO DE AURELA. Untzigidaria. Zerrenda hau egiterakoan, Buenos Aireserantz atera ziren Andres Martinez de Murguia jaunaren karguko untzietako batetan zegoena.

Iturria

LEZOKO UDAL ARTXIBO HISTORIKOA: "E sekzioa - 6 negoziak - lehenengo liburua - lehenengo espedienteak".